



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza

Igandea
2009-03-01

VIIURTEA 1.642.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Patxi Zeberio, garaikurra eskuetan duela, herenegun, Labrit pilotalekuan. JOSEBA ZABALZA

ZEBERIO FRONTOI MOTZEKO TXAPELDUN BIGARREN URTEZ

ELDUAIN 35-23 irabazi zuen herenegun, Urrutiaren aurka, finalaren bigarren partida; sakearekin asmatu zuen, bereziki, elduaindarrak 7

Otaegik eta Aizpuruak aizkora apustua adostu dute


ZIZURKIL Maiatzaren 31n izango da, Azpeitiko zezen-plazan; bakoitzak 3.000 euro jarri ditu 6



Hoberenako pilotari nafarrak, atzo Emakumea Pilotari Irekian. AIMAZ

Emakumea Pilotari txapelketaren partidak gurean

ANOETA Gaur II. DV Sariaren finalak jokatuko dituzte, 11:30ean, Beotibar pilotalekuan 6



HITZari buruzko informazioa

bihar martxoak 2
**EAEko hauteskundeak
HITZAn**

eskualdeko emaitzak herriz herri



G Gutunak

Izan gaitezen adimentsu

Garbi dago Espainiar Estatuako politikariak eta komunikabide gehienek (baita Euskal Herrian dauden hainbatek ere, *Diario Vasco* eta *El Correo*, adibidez) nahi dutela Patxi Lopez lehendakaria izatea PPren botoei esker. Noski horretarako sortu zuten Alderdien Legea. Horrekin lortu nahi dutena da ezker abertzalearen zati nagusiaren eragin politikoa erabakiak hartzerakoan deuseztea. Hala ere, euskaldunok, nere ustez, badugu zirrikitu bat, PP eta PSOE alderdi antidemokratiko eta tranposoen asmo zitakal zapuzteko.

Hirurogeigarren hamarkadan ikastolak sortzen ari zirenean, gure gurasoan eta orduko eskultzaileen adimenari esker lortu zuten Frankismo garaian ikastolak sortu, hedatu eta finkatzen hastea, oztopo pila bat bidean zutela. Orain dela urte gutti, apaiz eskultzaile batek orduko garaiaz pasadizo oso argigarri bat kontatu zidan. Ikastolak sortzen ari zirela jende asko (batez ere adinez oso gazte ez direnak) badaki ikastola haietako haserako ikasleek «inspektore Frankistaren bisita» izaten zutela. Apaiz honek esanda jakin ahal izan nuen hainbat ikastoletan (hobe esanda klandestino ziren etxe horietan non andereñoak hasi ziren umeak euskaraz hezten) inspektore Frankista iristen zenean antzeko galderak egiten ziren andereñoi: «¿Que hacen estos niños aquí? (zer egiten dute ume hauek hemen?)». Orduan andereñoak oso azkarrak zirenez, esaten zioten jokatuko hitz egitera herri edo auzo zehatz horretako apaizarekin, ume hauek «catecismo en vascuence» jasotzen ari zirelako. Andereño horiek bazekiten herri edo auzo zehatz horren apaiza eskultzailea zela eta inspektoreak apaizarekin hitz egiten zuenean apaizak «gezur errukitsu bat» erantzuten zion, andereñoak esandakoa baieztatuz.

Teorian, orduko eliza eta frankistek sintonian egon behar zutenenez, inspektoreak apaizari kasu egina eta pixkanaka jende askoren izugarritzko sakrifizioari esker ikastolek bere bidea egiten segitu zuten. Ez dakit zenbat kasuetan gertatu zen nik esandakoa baina

niri bi ikastola zehatzetan hau gertatu zela baieztatu didate.

Badago zirrikitu bat PSOE eta PP tranpak egin arren eta kartak markatuta erabili arren, beraien asmoa zapuzteko, eta Euskal Herrian aurrerapauso bat emateko ideia politikoa guztiak zilegi eta gauzagarriak izan daitezzen urratu beharreko bidean. Garbi dago EA-Eko hauteskundeetan lehendakari sozialista edo Ibarretxe lehendakaria izatea ez dela berdina izango. Balantza alde batera edo bestera joateko ezker abertzalearen zati nagusiaren jokoerak izugarritzko garrantzia izango du hauteskunde hauetan. Nik esparru honetako jendea (jakin arren beraiegi egiten ditela izugarritzko injustizia eskubide politikorik gabe utziz), zera

proposatuko nieke: zuetariko batzuk boto taktikoa ematera animatzen dizuet. Adibidez, EA hitzetik hortzera soberanismoan murgilduko direla aldarrikatzen ari dira (geroago konprobatu daiteke ea benetan ari diren edo esaten dutena egiteko ausardia duten). Badago beste eskaintza abertzale eta euskaltzale bat; Aralar. Hauek aldarrikatzen dute zerbait oso erakargarria eskubide politikorik gabe geratu direnentzat, adibidez AHTren aurka daude eta baita ere Pasaia Superportuaren aurka.

Nire ustez, kanpotik ikusita, ezker abertzalearen zati nagusi horren pertsona esanguratsuek D3Mrentzat botoa eskatuz, praktikan lortuko dute jakitea gaur egun zenbat pertsona dauden es-

parru horretan, baldin eta esparru horretako guztiak D3Mri botoa ematen badiote. Boto eskaera hori zilegi da eta bide batez berresaten dut hauteskunde hauek ez direla demokratikoak, alderdien legea dela eta. Aldiz, jakina da, luze jo gabe Europako parlamentuan parte hartzeko hauteskundeak iritsiko direla. Nire ustez, jakinda ere zein bidegabekeria egiten duten ezker abertzalearen zati nagusiarekin, hobe litzateke esparru honetako pertsonak hainbat boto taktiko ematea eta Europako hauteskundeak iristen direnean sortu den plataformari ezker abertzalearen zati nagusiak blokean bere plataformari botoa ematea. Izan ere, ziur aski jakiteko zenbat pertsona osatzen duten esparru hori

hilabete batzuk itxaronda ez da larria izango.

Gogoratu, bi urte baino lehen, aditu gehienek ustez, Estrasburgoko auzitegiak bere erabakia eman beharko du Hego euskal Herrian lege kanpo dagoen Batasunaren aferan. Ildo horretatik epaitegi horretan konfidantza badautkat, izan ere gogoratu besterik ez dugu egin behar epaitegi horretako epaileek erabakitako Iruñeko Iribarren kasuan. Epai horren arabera Espainiako estatuaren errua aitortzen da polizia espainiarrak jipoitu zuenean gazte hau eta aipatzen da justizia espainiarraren axolagabekeria, ageria jarriz Europa guzitarien aurrean nola funtzionatzen duen espainiar estatuak.

Aimar Arrese-Igor Etxeburua.

A Asteko irudia



Urteko jairik dibertigarrienak igaro dira

TOLOSA • Denbora ugari eman dugu mozorroa, konpartsak edota karrozak atontzen; denbora ugari, saltoka, dantzari, abesten, barrezka... eta denbora ugari behar izan dugu jai hautetaik errekupeperatu eta eguneroko jardunari ekiteko. Izan ere, Inauteriak ez dira sei egun irauten duten herri-

ko festa soil bat. Orain atsedean pixka bat hartzea eskertuko dugu, baina, hau ere, ez dadila luzeegia izan, eta ez gaitzala berritako erreenak harra-pa; hurrengoetarako mozorro egokiena pentsatzeko unea konturatzera-ko izango baitugu gainean. IT.

H Hilberriak eta urteurrenak

JOSE ANGEL BEOBIDE URIA

JAUNA

(M. Dolores Iguaran Urruzolaren alarguna)

Herenegun hil zen, 82 urte zituela.

—Goian bego—

Urak dakarrena, urak darama zuk emandakoa, gurekin gelditzen da.



Seme-alabak: Kontxi eta Pio, M^l Angeles eta Inaxio, Anabel eta Antxon, Isidro eta M^l Jose, Ana Jesus eta Mariano, Jose Luis, eta Pilar; bilobak: Maider, Egoitz, Naiara eta Jokin, Oihane eta Joseba, Ibaso, Ariz, Ifaki eta Andrea. Haren arimaren alde otzitx bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitzetzela GAUR, IGANDEA, arratsaldeko BOSTETAN, Alkizako SAN MARTIN parroki elizan, GORPUA bertan dela, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

ALKIZAN

2009ko martxoaren 1a

Helbidea: Berandoain Baserria.

I. urteurrena

ANDONI AGIRRE LARRAÑAGA

2008ko martxoaren lehen hil zen, 75 urterekin.

Zure familiak, gogoan zaitugu.



Urteurrenoko meza GAUR, igandea, eguerdiko hamabietan egingo da Lazkaoko Mikel Deunaren parrokiari. Eskerrak aurrez.

LAZKAO
2009ko
martxoaren 1a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Eguraldi onak eragin nabarmena izan du larunbateko Tolosako azokan

PABLO ALBERDI

Eguraldi onak ekarritako eragin positibo oso nabarmena izan zen atzo asteroko azokan. Berdura plaza-ko baratzako landare postuetan bizitasun handia ikusi genuen. Asko izan ziren beraien baratzak betetzeko asmoarekin gerturatu zirenak, lehortasuna eta eguzkia aprobetxatzekotan. Atari kaleko arbol postuetan ere jende asko ikusi genuen, eta salmentak ez ziren kaxkarrak izan.

Barazkien arloan, ordea, lasaitasuna somatu genuen. Joan diren hilabeteko eguraldi gogorrek huxineak utzi ditu baratzetan, eta mahaietako eskaintzan eragina ere izan du. Halere aipatu beharra dago berdura plazako postuetan ikusitako nobedadea: aurtengo lehenengo baratzuri freskoak orain dela aste pare bat aurkeztu dituzte.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares. Landareak		
Azalea	8,50	-
Xarbota	4,00	6,00
Kalendula	2,50	-
Ziklamena	5,50	-
Erromeroa	4,00	6,00
Surfinia	2,40	-
Lobelia	4,50	-
Biola	3,00	-
Salbia	1,00	1,20
Krisantemoa	12,00	20,00
Klabeledina	2,80	4,00

BERTAKO PRODUKTUAK

Barazkiak (kiloa)		
Baba	3,00	4,00
Babarrun zuria	8,00	-
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Tomatea	2,00	4,00
Baina	4,00	6,00
Porrua	1,00	3,00
Kalabaza	1,50	3,00

Barazkiak (unitatea)

Kalabazina	0,72	-
Trebisoa	0,90	-
Txikoria	1,00	1,25
Azalorea	1,00	-

Besteak

Ogi biologikoa (900gr)	2,20	-
Arraultzak	1,10	2,40
Irasagarra	3,60	-

Gaztak

Gazta berria	17,00	-
Ardigazta	14,00	18,00

PRODUKTUEKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Letxua	1,00	-

Z Zurea da hitza

info

Ekitatea lantzen, munduko egoera hobetzeko

Zizurkil » Beharrezkoak diren gauzak soilik edukitzea da ekitatea; Eskolako Agenda 21ean ari gara lantzen.

ESTITXU DIAZ

Ni Estitxu naiz, 10 urte ditut, eta Pedro Mari Otañoko ikasle bat naiz. Aurtun Eskolako Agenda 21ean ekitatea lantzen ari gara; ekitatea bakoitzak beharrezkoak dituen gauzak edukitzea da. Munduan ez dago ekitaterik, zeren munduan bi heren pobrezian edo pobrezia arriskuan dago. Oso egoera txarrean daude, bi segundoro ume bat hiltzen delako, 40 urte baino gehiagokoak hiltzen direlako, ume asko eskolan ikasten egon beharrean lanean daudelako, gu baino gehiago egiten dutelako



Segundo Montes komunitateko gaztetxo batzuk. HITZA

lan egoera txarrean eta gu baino gutxiago kobratzen dutelako...

Horregatik, gu El Salvador-eko Segundo Montes komunitatearekin anaieratuak gaude. Maxurgure eskolako zuzendariak eta

hango zuzendariak hitzarmen bat sinatu zuten, esanez anaieratuak geundela. Beraien eskola ez da gurea bezalako; han mahaiaik puskatuta dituzte, sabaia ere puskatuta dago, euria egiten duenean ez

daukate lekurik jolasteko, eta horrelako gauza pila bat. Gauza horiek guztiak konpontzeko guk gure eskolakobartzeko fruituak saldu genituen Zizurkil Goiko azokan, eta ateratako dirua beraiei eman genien. Klase bakoitzeko argazki bat atera eta egutegi batean jarriz saldu egin genituen. Eta horrela jarraituko dugu beraien gauza puskatuak konpontzeko dirua edukirte.

Hori ikusi eta gero, gustatuko litzaideke berdina egitea munduarekin, hau da, behar ez ditugun gauzak pobreei ematea, dirua behar ez dugun gauzetan gastatu ordez zati bat beraiei ematea, eta horrelako gauza aske. Nahiko nuke denek honetan parte hartzea, ea denon artean munduko egoera hau zer bait gehiago hobetzen dugun.

Eta besterik gabe, agur.

B Blogteka info

2009ko otsailak 27. 33 urte aski dira

2009ko otsailak 27an 33 urte bete dira, soldadu espainiarrek euren bandera Aaiungo (Mendebaldeko Sahara) azken destakamentutik kendu baino egun bat lehenago, Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zela Saharako basamortuan.

Egun berezia beraz, Saharar Herriaren askatasun eta demokratizarako bidean. Zoritzarrez, 33 urte beranduago egun hartan ipinitako haziak ernatu ezinik jarraitzen du. Marokok okupaturiko Mendebaldeko Sahararren jazarpen etengabea jarraitzen du, bertako giza eskubideen aldeko kideen atxiloketa, tortura eta bortxaketa salaketak nazioartean eratzun hutsala jasotzen duelarik.

Testuinguru honetan, beste urte batez SEADaren aldarrikapenaren urteurreneko ospakizunetan izan gara Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak, eta Tindoufeko

(Aljeria) errefuxiatu kanpalekue-tako Smarako Wilaian Nazio Batuen Erakundeko (NBE) Mendebaldeko Sahararako bidali berezi berriari, Christopher Ross estatu-batuarrari, 33 urte luzeetan errefuxiatuak aurkitzen diren sahararrek eginiko errespetuzko, baina aldi berean, amorrutako harreka hunkigarriaren lekuko izanik.

Tolosaldeko Sahararekin elkartetik, Espainiako Gobernuaren erantzunkizuna azpimarratu nahi dugu beste behin. Gatazkaren konponbidean, SEADa estatu subira eta demokratiko moduan onartu beharko luke gutxieneko keinu moduan. Ondoko eskakizunak egiten dizkiogu: gatazkaren gainean ezarri duen blokeo mediatikoaren amaiera, eta Mendebaldeko Sahararen demokrazia eta giza eskubideen garapenaren gainean mantentzen duen hipokresiarekin amaitzea...

Harea eskuetan

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/sahararekin/>

Inauterietako argazkiak

Gure Inauteri maitea amaitu da, hurrengo prestatzen hasi baino lehenago oraindikan pasa berri dugun hau argazkiekin disfruta genezake. Hirukideko webean Ostegun Gizeneko eta Kirikiñoko argazkiak dituzue.

Hirukide ikastetxearen bloga

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hirukide/>

Lilatoirako izen-ematea

Emakumeen Nazioarteko Eguna aprobetxatuz, Lilatoia emakumeen lasterketa egiten da urtero Donostian, martxoaren hasieran. Bana naka parte har daiteke, eta baita taldeak ere. Azken urteetan ikastolako ikasle, ikasle ohi, ama... eta irakasle batzuk animatu izan gara eta oso ongi pasa ere bai. Aurtun ere animatuta gaude, baina talde handiagoa izatea nahi genuke.

Lilatoirako izena emateko modua aldatu egin dute. Lehen Ikas-

tolan egiten genuen, baina aurtun dortsala eta txipa lasterketaren egunean edo bezperan norberak jaso behar duenez, izen-ematea ere bakoitzak egin behar du. Horretarako: Lilatoirearen web orrian inprimakia bete, taldearen izenaren Laskorain Ikastola jarriz; orrian, informazio orokorrean, kontu korrontearen zenbakian diru-sarrera egin (10 euro), eta ziurtagiria gorde, dortsala eta txipa jasozerako; dortsala eta txipa larunbatean jasotzea aholkatzen dugu, igandean zaillagoa izatean baita.

Lasterketaren egunean, martxoaren 8an, 10:15etik 10:30era Viajes Marsans dendaren aurrean geratuko gara, Boulevard eta Hernani kaleen izkinan, udaltxearen aurrean (Alderdi Ederren aldetik). Ikastolako kiroleko kamiseta eraman ohi dugu. Edozein zailantza izanez gero, idazkaritzan galdetu. Anima zaitetz!

Laskorain ikastolaren bloga

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/laskorain/>

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Donostia aldeko banaketa enpresa batek ADMINISTRARI-KOMERTZIALA lanpostua bete behar du

Lanpostuaren funtzio nagusia, lan komertzialak egiteaz gain, banaketa koordinatzaileekin elkarlanean kanpainan banaketa antolatzea eta haien jarraipena egitea izango da.

Eskaintzen da:

- Urte amaiera arteko kontratua (luzateko modukoa).
- Egun osoko lanaldia.

Eskatzen da:

- Administrazio eta merkataritza arloko ezagutzak.
- Bulegotika programen ezagutza, erabiltzaile mailan.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako erantzutasuna.
- Antolaketarako gaitasuna.
- Gida baimena eta autoa izatea.
- Lan komertzialean eskarmentua izatea baloratu da.

Curriculum vitae zehatza bidali martxoaren 10a baino lehen: gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo Jarduna SM (Giza Baliabideak Saila) Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain helbidera

Ez ahaztu erreferentzia zehatzea ADMINISTRARI-KOMERTZIALA (Erreferentzia: 09-ET-KOM)

Joseba Otaegik aizkora apustua jokatu du Josu Aizpururen aurka

Zizurkil » Azpeitiko zezen-plazan jokatu da lehia maiatzaren 31n, 12:30ean. Alde bakoitzak 3.000 euro jarriko ditu.

ASIER IMAZ

Bigarren Mailako Euskadiko Aizkolari Txapelketa irabazi zuen abenduan; aurten Euskal Herriko aizkolari onenekin ibiliko da; Lehen Mailan «galtzeko ezer ez duela» aipatu zuen; Zizurkilera joa zen 1983. urtean; Joseba Otaegi daber eta maiatzaren 31an aizkora apustua dauka Azpeitian.

Josu Aizpuru vs. Joseba Otaegi

«Osabak Azpeitia aldean egiten du lan eta zurrumurruren bat bazebilela esan zidan. Kontu horiei ez nien kasu gehiegi egin. Lehengo igandean irratian bota omen zuen apustua, zuzenean niri gainera. Harrituta, baina gustura jokatu dut». Otaegiren hitzek azaltzen duten bezala, ezustekoz betetako



Joseba Otaegi zizurkildarrak aizkora apustua jokatu du Azpeitiako zezen plazan Josu Aizpururen aurka. NAIRA GARZIA

apustua adostu zuten herenegun Josu Aizpuru eta zizurkildarrak.

Iragan igandean, irratia bidez, Aizpuruk zuzenean Otaegiri apustua bota zion. Baldintzak eztabaidatzeko nuarbetarrak hitzordua Azpeitiko Mendizabal tabernan jarri zuen. Bertan iritsi ziren adostasunera herenegun bi aizkolariak.

Apustuaren inguruan honela mintzatu da Otaegi: «bera 3. mailan aurkitzen da, baina konfiantza handia erakutsi du, batez ere lan luzeetarako. Hiru hilabeteko prestakuntza eskatu zuen apustua baino lehen, niretzat denbora asko zen hori. Guk beranduenera apirilaren amaieran nahi genuen. Data horietan egitekotan abantaila eskatu zuen berak. Berak bota apustua eta abantaila eskatu? Negurako esan genuen orduan. Kasu honetan egur handiagoekegin egin nahi zuen. Azkenean hirur hilabeteko prestaketa tartea onartu genuen eta maiatzaren 31n egingo dugu».

3.000 euro bakoitzak

Azpeitiko zezen-plazan lehiatuko dira bi aizkolariak maiatzaren azken egunean, 12:30ean. Sarreerak eta gastuak erdibana joango dira. 12 enbor moztu beharko dituzte; 8 kanaerdiko eta 4 oinbiko. Diruari dagokionez, alde bakoitzak 3.000 euro jarriko ditu.



Gaur DV Sariaren finala 11:30ean

PILOTA » Euskal Herri osoko pilotariak ari dira jokatzeko ezker hormako II. Emakumea Pilotari Irekian. Atzo Anoetan jokatu zituzten txapelketaren 5. eta azken jardunaldiko partidetan lehenak. Izan ere, jardunaldiko azken partidak gaur jokatu dituzte Aginagan. Hemengo emaitzen arabera zehaztuko dira finalerdietara sailkatuko diren zortzi bikoteak. Ezker hormako II. Emakumea Pilotari Irekia txapelketako norgehiagokez gain, gaur II. Diario Vasco Sariko azken partidak jokatu dira gaur Tolosako Beotibar pilotalekuan 11:30ean. Lehendabizi 3 eta 4. postuak erabakiko dira eta ondoren finala. Aipatu finalean Nagore Arozena lizartzarra egongo dela. ASIER IMAZ

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldeko bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurrumendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Ukendua.** Fistula edota erredura arazoak baldin badauzkazu, zirujua gabe eta modu erabat naturalean sendatzeko ukendua. Dena guztiz naturala. Edozer gauzatarako deitu konpromezu gabe ondorengo telefono zenbakira: 618 62 83 11. Edota idatzi helbide elektronikoa honetara: garitxu70@hotmail.com

📧 **Papereko edizioa.** Sartu gure web orrian *Papereko edizioa* atalean. Bertan, egunkarian irten diren albiste guztiak irakurtzeko aukera edukiko duzu. Gure bi eskualdeetako herri bakoitzari buruz idatzi dena ere ikusi ahal izango duzu atal honetan, horretarako herriaren gainean sakatu eta ondoren *Papereko edizioa* jartzeko duen atalean klikatu beharko duzu. Horretaz gain, albistearren inguruko idatziak idatzi eta irakurtzeko aukera eskaintzen dizu gure web orriak:

www.tolosaldeko-hitza.info

BERRI ON BAT DUGU
ZURE ETXETRESNA ELEKTRIKOENTZAT

TOLOSALDEAN
Zerbitzu
Ofizial Berria
BSH Taldeko
Markentzat

Interservice
Ubarburu pasealekua, 81-
Pol. Ind. 27 • 20014 Martutene

902 351 352

Interservice
Servicio 24/7 de Clientes

BOSCH
SIEMENS
Bosch
LYNX
ufesa

Zeberio II.a, bigarren urtez frontoi motzeko banakako txapelduna

Elduain » 35-23 irabazi zuen Labriten, Urrutia gaztearen pattalaldia baliatuz; batez ere sakearekin asmatu zuen.

ERREDAKZIOA

Patxi Zeberio erremonteko II. Banakako Masterra irabazi du, pilotaleku motzekoa, hain zuzen ere. Urrutiaren kontra 35-23 Labriten irabazi ondoren. Joaneko partidaren 35-31 galdu zuen elduaindarrak, baina aise eman zion buelta markagailuari. Urrutia gaztea bukearen hasi zen beherkadan eta ezin izan zuen elduaindarraren erritmoa jarraitu.

Labriten erremontistarik osatuenaren saria jaso zuen Patxi Zeberio, erraztasunez Urrutia garaitu ondoren, frontoi motzeko banakako txapelketan. Zeberio II.aren arma konstantzia izan zen, kontuan izanik ere, noski, bere egoera fisiko ona. Partidaren bigarren zatian agerian gelditu zen Ze-



Labriten, Zeberio II.a pilota paretara bueltatzen. Urrutiak bukearen ez zuen bere maila eman. JOSEBA ZABALZA

berioen fisiko ona, Urrutia gain-behera hasi baitzen. Izan ere, Zeberio 23-26 egotetik 23-35 bukatzera iritsi zen: bederatzi tanto jarraian, hain zuzen. Ordura arte, partida orekatua ari zen izaten.

Lau tantoko aldea izan zen bien artean partidaren momentu askotan. 26-23ra iritsi arte ez zegoen argi nor irabaziko zuen. Aurrelari elduaindarrak indar handiko saka egin zuen; jokaldi honekin oso

ondo aritu zen, bost tanto zuzenean eginez. Urrutia nafarrak arazo fisiko batzuk zituela esan zuten, hila eta erdi inguru gaizki ibilita. Partida besoko minez bukatu zuen. Dena dela, Zeberio txapela

meretza irabazi zuen. Joan den urtean ere txapelduna izan zen, Lizasoren aurka irabazi ondoren.

Sakearekin min handia

Patxi Zeberio «pozik» agertu zen partida bukatu ondoren: «Oso pozik nago, erantzun dudana moduarengatik eta txapela irabazteagatik: erremonteko txapelketa indibidual nagusia abuztuko da baina hau irabazteak ere ilusioa egin dit, beti polita baita banakako txapelak irabaztea, are gehiago Urrutia bezalako arerioaren aurrean».

Sakearekin asmatu zuen, «zuzenean tantoak ez baziren, asko behartzen nuen Urrutia errebotearen garaian. Partidaren erdialdean behar akada txiki bat izan nuen». Orduan Urrutia hurbildu zitzaion, «baina berriz ondu eta berreskuratu egin nintzen».

Urrutiak bere alde zuen finala, joaneko partidaren 35-31 irabazi baitzuen Galarretan eta «penatua» zegoen horregatik. Sakearekin egindako mina azpimarratu zuen nafarrak. Txapelduna zoriandu zuen bukatzeko.

Zeberio II.ak 26 tanto egin zituen: bost sakez, errestoz bat, lau bi paretatan, bi dejadaz, bat moztuta, 11 atzean, 1 rebotez eta bost akats. Guztira 45 minutu iraun zuen Labriten partidak.

Nafar Jokoak Amazabalen

LEITZA » Atzo goizean zehar Leitza Amazabal pilotalekuan Nafar Jokoak jokatu ziren hiru maila ezberdinetan. Leitzarrek aritu ziren, noski, eta lehenengo kasuan, Bi aizpe lurtzungo pilota eskolakoen aurka aritu ziren alebinak. Emaizta lurtzungoen aldekoa izan zen, 18-8. Aipatu behar da, Ander Eskudoren orde z Daniel Zabalak jokatu zuela (bi urte gazteagoa da). Iru-dian, Bi Aizpeko aurrelaria, saka egiten. NEREA URBIZU



Elkarretaratzea Sahararen alde

TOLOSA » Herenegun bete ziren 33 urte Sahar Errepublikari Arabiar Demokratikoa (SEAD) sortu zenetik. Hori dela eta, eta «herri horri elkartasuna adierazteko helburuz», eskualdeko hainbat udal-txeetako balkoietan —Tolosan eta Villabona, esaterako— Saharako

bandera zintzilikatu zuten. Hala, ber, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin kideek elkarretaratzea deitu zuten herenegun iluntzean, eta hainbat lagun bildu ziren Maroko Sahararik at autodeterminazioa eta independentzia Mendebaldeko Sahararentzat lelopean. i.r.

NUTRIZIO AHOLKULARITZA
DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA
NUTRIZIO BERREZIKETA
HELDUAK ETA HAURRAK
KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Piñata Igandea: Poca-Tripa txaranga eta Txilaba Elkartearen konpartsa lurreamendi Egoitzara joango dira Inauteri doinuekin, 10:45ean. Ondoren, babarrun jatea egingo dute, 14:00ak aldera.

Kirola

■ **Pilota.** Emakumezkoen II. DV Sariaren finalak gaur goizean, Beotibar pilotalekuan. 11:30ean hasiko dira partidak. Lehendabizi 3. eta 4. postuetako partidak, eta ondoren, finalak.

Deialdiak

■ **Alegia.** Emakumeen afaria izango da Txintxarri jatetxean, martxoaren 7an. Prezioa: 15 euro. Alegiako Udalak afariaren erdia ordaintzen du (menua berez, 30 eurokoa da). Tiketak salgai martxoaren 4ra arte Kultur Etxean.

■ **Tolosa.** Haur bereziekin lan egiteko ipuin tailerra *El cuento y la inclusión* izenburuan, Ana Torrellese eman, martxoaren 6an eta 7an. Izen-ematea, Kultur Etxean, 60 eurotan. Informazioa *asvineana@gmail.com* edo 647 201401 telefono zenbakian. Antolatzailea: Asvineana.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan: 17:00etan, *El reino de los chiflados*. 19:30etan eta 22:00etan, *Valkiria*.
■ **Villabona.** Gurea aretoan: 17:00etan, *El reino de los chiflados*. 19:30etan, *Siete almas*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Lurreko animalia eta izakien dantzak

TOLOSA • Animalia bereziak dantzan ikusi ahal izan zituen atzo Leidor antzokira hurbildu zenak. *Animaliak* izeneko ikuskizuna zegoen eta bai animaliaz jantzitako animaliak eta baita gizakiek ere, dantzarako abilezia erakutsi zuten. Lurra bera eta bertan parte hartzen duten hainbat ele-

mentu ikusi ahal izan ziren, bakoitza soinu lasaigarri batekin gainera. Jon Ariño da zuzendaria eta aktore lanetan hiru lagun aritu ziren: abilezia erakutsi zuten ere arropa eta janzkera aldatzeko garaian, izan ere, pinguino izatetik gizakia izatera di-da batean egiten zuten. N. URBIZU

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

LIBURUA SALGAI

Salmenta:

Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140€
-----------------	-------------------

Salmenta puntuak:

- Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzako bulegoetan,
- Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburutegietan.
- Ibarako Lurdes liburutegian.
- Villabonako Basajaun liburutegian.



1936KO GERRAKO
OROITZAPENAK
TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

ARANZADI

galtzaundi

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO
hitza